

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**432/2021 Foru Agindua, azaroaren 11koa. Praktiketako funtzionarioak izendatzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikarien klasea, informatika teknikaria) sartzeko deialdian**

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko lan eskaintza publikoaren oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

11.2 oinarri orokorrak aurreikusten du epaimahaiak praktiketako funtzionario izendapenen proposamen bat egingo duela, zeinetan izangai bakoitzari dagokion lanpostua jakinaraziko baita, bai eta zerrenda argitaratu egingo dela ere.

Bidezkoa da hautatuko izangaiak praktiketako funtzionario izendatzea, behin gaitasunari, hautaprotetan onartuak izateari eta lanpostua betetzeari dagozkien betekizunen agiriak aurkeztuta.

13. oinarri orokorrean zehazten da hala ezartzen duten deialdi espezifikoetan, praktika eta prestakuntza aldi bat egingo dela, gehienez ere sei hilabetekoa.

Praktika aldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

13. oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, balioespen batzorde bat eratuko da, eta hark epaimahai kalifikatzaileentzat ezarrita dauden jarduteko arau berberak izango ditu, eta praktika aldia eta prestakuntza aldia "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioekin balioetsiko du.

Bat etorritz honako hauetan ezarritakoarekin: Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, zeinaren bidez funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri baitziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi baitzen,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hautatutako izangaiak praktiketako funtzionario izendatzea, 2021eko abenduaren 1eko ondorioetarako datarekin, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrearen 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan, sistema irekiko txanda orokorrean, karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, goi-mailako teknikarien klasea, informatika teknikaria. Hautatutako izangaiak ondoren zehazten diren lanpostuetara atxikita daude:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Juan Manuel Rubio Ortún	Informatika teknikaria	1279.002
Igor Trápaga Pérez de Albeniz	Informatika teknikaria	1279.001

Bigarrena. Praktika aldia egiteko lanpostu atxikipenak behin-behineko izaera du.

Hirugarrena. A1 taldeko oinarrizko ordainsariak eta atxikitako lanpostuari dagozkion ordainsari osoak jasoko dituzte.

Laugarrena. Praktika eta prestakuntza aldia balorazio balioespen batzordeko kide izendatzea honako hauek:

Batzordeburua	Titularra	Lourdes Martínez de Lagos Manzana
	Ordezkoa	Cristina Navas Iburguren
Batzordekideak	Titularra	Javier López de Calle Ochoa de Eribe
	Ordezkoa	Pablo Martínez de Arbulo Echevarria
	Titularra	Agustín Vicente Vicente
	Ordezkoa	Alexander Rodríguez López

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan —urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 11

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**